

KURRIKULUMA dekolonizatzen

UNITATE DIDAKTIKOA





KURRIKULUMA dekolonizatzen

Sarrera

2021EKO MARTXOAREN 6AN EUSKAL HERRIKO Emakumeen

Mundu Martxak V. ekintza internazionalaren itxiera ospatuko du Irun-Hendaiako mugan. Bertan, mugak, migrazioak eta transnazionalak landuko dituzte idatzi duten txosten batean oinarrituta. Horren harira STEILASeko Idazkaritza Feministatik, bertan landuko diren kontzeptu ezberdinak landu nahi ditu eskoletan pedagogia feministaren biderei jarraipena emateko. Beti esan dugun bezala emakumeoi biolentzia askok gurutzatzen gaituzte, arrazakeria da horietako bat eta horren oinarrian kolonizazioa dago.

Europa duela 500 urte baino gehiago hasi zen beste lurraldeak kolonizatzen eta prozesu horiek gaur egun ere bizirik darrai. Enpresa transnazionalak beste kontinenteetako lurraldeak ustiatzen dituzte beraien mesedetan, bertako ondarea lapurtzen dute, bertan bizi direnei sortzen dizkieten kalteei begiratu gabe, kolonialismo berria da. Txuriok hau egiten dugun bitartean, beraien lurraldeetan bizi diren pertsonei beraien herrietan bizitzeko baldintzak kaxkartzen dizkiegu, guregana etortzeko mugak jartzen dizkiegu, trabak, zailtasunak alde guztietan migratu ez daitezten. Hau da haien lurraldeetatik kanporatzen ditugu gurera etortzeko aukerarik eman gabe.

Pertsona orok bere jaioterrian bizi proiektua baldintza duinetan izateko eskubidea dauka, baina hori ez da posible pribilegioak ditugun gizarteak honen inguruko hausnarketarik egiten ez dugun bitartean. Horregatik kurrikuluma moldatzen joan behar gara, gure ikasleek historian egin diren eta egiten ari garen ankerkeri guztiak ezagutzeko eskubidea daukate. Etorkizuna aldatu nahi badugu egia jakin behar dugu eta eraldatzeko erabakiak hartu. Emakumeok gure etorkizuna erabakitzeo eskubidea daukagu eta hezkuntzako langileok hori aurrera eramateko baliabideak eman behar dizkiegu.





Abiapuntua

HELBURU OROKORRA

Dekolonialitatea lantzea, horretarako baliabide eta proposamen desberdinak baliatuz.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Askatasuna/aniztasuna/dibertsitatea ahalbidetzen duen bizikidetasunerako jarrera egokiak eta desegokiak identifikatzea.
- Normaltzat hartzen diren baina emakumeen kontrako indarkeria ezkututzen dituzten ohiturak, sinesmen eta praktiken aurrean espiritu kritikoa garatzea, haien ondorioez jabetzeko eta kontra borrokatzeko.
- Ikasleen auto-estimua era aktiboan sustatzea, beraien garapen psikosoziala indartuz, erabakiak hartzeko gaitasuna izan dezaten.
- Arazoak konpontzeko taldeko estrategiak garatzea.
- Beldur mota desberdinak identifikatzea kontra jotzeko kapaza izateko.
- Zein jendarte eredu nahi dugun hausnartzea, hura aztertuz, jendartearen norbanako guztien ongizatea bilatzeko.
- Gaitasun sozialak lantzea jabetze prozesu bat gauzatzeko (bai/ez esatea, argudiatzea, eskatzea, nahia adieraztea..), horretarako behar diren egoerak eskainiz, askatasunez bizitzen ikasteko.
- Gatazken konponbidea modu positiboan lantzea, horretarako behar diren egoerak eskainiz, enpatia garatzeko.
- Eguneroko arrazismo eta antigitanismo jarrerari erreparatzea, hau da, pribilegio zuri-payoaz jabetzeaz.



OINARRIZKO GAITASUNAK

- Pertsona arteko eta gizalegezko gaitasunak.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- Ikasten ikasteko gaitasuna.
- Gaitasun digitala.

EDUKIAK

- Unitatean agertzen diren jarrera ezberdinen definizioa: beldurra, elkarrizketa, eskuzabaltasuna, errespetua...
- Bakoitzaren desioen identifikazioa.
- Gizarteko desberdintasun sozialen hausnarketa.
- Emakume eta nesken egoeraz sentibilizazioa, bereziki ijito, migratu eta arrazializatuenaz.
- Eguneroko arazoak eta konponbideak.
- Auto-estimua hobetzeko mekanismoak.
- Elkarlanerako eta lankidetzarako jarrera eta adostasunetara iristeko prozeduren garapena.
- Informazioa bilatzeko, sailkatzeko, aztertzeko eta adierazteko trebeziaren garapena.
- Migrazioak, mugak eta transnazional kontzeptuak ezagutzea.
- Zaintzari dagokionez ze nolako ohiturak dituzten norbanakoaren lurraldean eta hauek nola eramaten dituzten praktikara: Zapien bitarteko porteoak nola egin, ze tamainako zapiak... Ze nolako pixohalak erabiltzen dituzten: oihalezkoak, plastikozkoak...



6

Jarduerak

Hurrengo jarduerak ikasleen adina zein gaiarekiko duten motibazioari egokitu beharko dira. Horretarako unitatearen amaieran aurki ditzakezuen baliabide desberdinak erabili ditzakezue.



GAIAREN AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA

Materialak: STEILASek aurkeztu duen kartela, folioak, boligrafoak, margoak, bideoak ikusteko baliabideak.

Denbora: 3 saio.

Taldekatze mota: Banaka, talde txikiak eta talde handia.

GARAPENA:

1. SAIOA

(HH, LH, DBH eta Batxilergoa)

- 1 Irakasleak STEILASeko kartela toki ikusgarri batean jarriko du.
- 2 Ikasleak talde txikitik banatuko dira eta hamabost minututan talde bakoitzari kartelaren esanahia zein den eztabaidatzeko eskatuko zaio.
- 3 Esanahiak amankomunean jarriko dira eta ondorengo galderen inguruan hitz egingo da adinaren arabera galderak egokituz:
 - Zer irudi ikusten duzue kartelean? Zer esan nahi dute bertan agertzen diren pertsonak?
 - Kartelaren leloak zer adierazten du?
 - Zer da dekolonialitatea? Zer da antirrazismoa? Zer da antigitanismoa?
 - Kartela egun honetarako egokia al da? Zergatik?
 - Egun hauetan errebindikazioak egiten jarraitu behar al da? Zergatik?
 - Zeri erreparatu diozue horrelako ondorioak ateratzeko?
 - Zergatik ari dira liburua igotzen eta bertan sartzen saiatzen?



2. SAIOA (LH 2. eta 3. zikloa)

Gelako liburu ezberdinak hartu eta agertzen diren pertsonaiak sailkatu: neska/mutil, gizon/emakume, larru azala zuria/larru azala kolorekoak, lodiak/argala...

- Zein da gehien ateratzen den taldea?
- Nola sentituko zinateke ikasten dituzun liburuetan zure moduko pertsonak agertuko ez balira?
- Zuk uste duzu pertsona eta kultura guztiak liburuetan agertzea komenigarria dela? Zergatik?


3. SAIOA (LH 2. eta 3. zikloa)

Kartela erreferente bezala hartuta ipuin, narrazio, dramatizazio... bat asmatuko da.

2. SAIOA (DBH eta Batxilergoa)

Saio honen alternatiba aurki dezakezu baliabideetan ere.

- 1 Ikasleei taldeka hausnartzeko jolas bat proposatuko diegu. Minutu batean, jarraian azaltzen den galderen adibide gehien aurkitzen dituztenek puntu bana eskuratuko dute txanda bakoitzean.
 - a. Nazioarteko kirolari profesionalen izen-abizenak?
 - b. Nazioarteko aktoreen izen-abizenak?
 - c. Nazioarteko *influencerren* izen-abizenak?
- 2 Aipatutako ikurren azpian sailkatzeko eskatu: ez binarioa (emakume/gizon binomioarekin identifikatzen ez direnak eta hirugarren genero baten alde edo agenerotasunaren alde egiten dutenak), emakumea eta gizona.






8


Kurrikuluma dekolonizatzen

- a. Egindako zerrenden artean zenbat dira gizonezkoak? Emakumezkoak? Ez binarioak? Zergatik dago batzuen eta besteen artean horrenbesteko aldea?
 - b. Zenbat dira arrazializatuak talde bakoitzean?
- 3 Petersen maparen kopiak ikasleen artean banatu eta aipatutako pertsonen jatorrizko herrialdeak adierazteko eskatu. Non kokatzen dira aipatutako pertsonak? Ipar edo Hego Hemisferioan? Zeintzuk dira kokatzen gehien kostatu zaizkizunak? Zergatik?



https://www.wikiwand.com/en/List_of_map_projections

- 4 Ikasleei esaeizu beraien mapa, honakoarekin alderatzeko:



[https://en.wikipedia.org/wiki/Gross_domestic_product#/media/File:Countries_by_GDP_\(PPP\)_per_capita_in_2017.png](https://en.wikipedia.org/wiki/Gross_domestic_product#/media/File:Countries_by_GDP_(PPP)_per_capita_in_2017.png)



- Zer alde dago 2 mapen artean?
- Zer lotura dago aberastasun banaketaren eta zuek ezagutzen dituzuen erreferentziako pertsonen artean?
- Gaurko saioan, pertsona eta munduari buruz duzuen ezagutza zein ardatzek baldintzatzen dutela frogratu ahal izan dugu?
- Hausnar ezazu ea ardatz gehiagok baldintzatzen duten pertsona eta munduari buruz dugun ezagutza.

3. SAIOA (DBH eta Batxilergoa)

- Bestelako zer ezaugarri baldintzatzen dute pertsona eta munduari buruz dugun ezagutza?
- Chimamanda Ngozi Adichie idazle nigeriarraren «Istorio bakarraren arriskua» hitzaldia jarriko dugu. Ikasleei azpiko hitzaldian azaltzen diren aurreiritziekin taula bete eta galderi erantzuteko eskatuko diegu.

<https://www.amarauna.euskadi.eus/es/recurso/istorio-bakarraren-arriskua/b64c2777-e959-4ae0-93de-193210288a27>

| | Chimamanda | Chimamandaren pisukidea |
|-------------------------------------|---------------------|-------------------------|
| Literaturari buruz | | |
| Fide eta familiari buruz | | |
| Nigeriarren hizkuntz gaitasuna | | |
| Sukaldeko sua erabiltzeko gaitasuna | | |
| Nigeriako musika | | |
| Mexikarrei buruz | | |
| | Hegazkin konpainia | Hedabideak |
| Afrikako irudia | | |
| Afrikako jendea | | |
| Mexikarrei buruz | | |
| | Idazle britainiarra | Literatura irakaslea |
| Afrikarrak | | |
| Afrikartasuna | | |

- Zer da istorio bakarra?
- Nork inposatu ohi du istorio bakarra eta nola egiten da?
- Zer ondorio eta arrisku ditu istorio bakarrak?
- Zer adibide historiko ematen ditu?
- Zer egin daiteke istorio bakarraren arriskuaren aurrean?
- Etxean kolonizazio ezberdinen historia noren ahotsetik entzun duzun hausnartu eta saia zaitetze errelato ezberdinak aurkitzen.



10



HAUR HEZKUNTZA LEHENENGO ZIKLOA

LANKETARAKO EREMUAK

Haur hezkuntzako lehenengo zikloan, hezkuntza modu integral batean ematen da, horretarako hezkuntza komunitatea izango da parte hartzailea.

■ **Elkarrizketa pertsonalak harrera garaian**

Haur bakoitzaren familiarekiko lehenengo elkarrizketak haurren informazio zehatza jasotzea du helburu; horretarako xehetasunak oso garrantzitsuak dira. Horrela, haurra eskolan dagoenean etxeko praktikak kopia egiten dira eskolatzeko prozesuak ahalik eta aldaketa gutxien izateko umearentzat eta bera eta helduaren arteko lotura ezartzeko.

Elkarrizketa gidoian beraien zaintza moduak erakusten dizkigute loaldi, otordu eta gainerako errutinei buruzkoak. Jarduera pedagogiko dekolonizatzaileak behartzen gaitu elikagaien inguruko datuak jasotzen: ze elikagaiak jaten dituzten eta hauek nola sukaldatzen dituzten ere. Oso garrantzitsua da elikagaiak duten sendotasuna eta otorduetako bestelako erritualak.

Era berean jolas baten aukeraketa ere eskatu ahal zaie familiei, umearen adinerako egokia dena, eskolan ere jolastu ahal izateko. Modu berean errezeta bat eta testu literario bat (ipuina, olerkia, kanta...) eskatuz gero, ikasleen aniztasuna lantzeko material kuttun-kuttuna izango dugu.

■ **Gurasoekin, familiekin eta tutoreekin egiten diren topaketak**

Espazio hauetan heziketan ahalduntzea da helburu nagusia, bakoitzaren zailtasun eta erraztasunetatik abiatuta.

- Zapien bitarteko porteak nola egin, ze tamainako zapiak...
- Ze nolako pixoihalak erabiltzen dituzten: oihalezkoak, plastikozkoak...
- Nola azaldu seme-alabari gehiengoa ez den talde batekoa dela (ijitua, beltza, beste lurralde batekoa)?
- Titia emateari uzteko moduak («Guk bi urte betetzen dituen henna ematen dugu ttitipuntan eta oso erraza egiten zaigu»).



■ Tailerrak

GASTRONOMIA. Tokian tokiko janariak prestatzen irakastea gainontzeko gurasoekin/familiekin/tutoreekin zein umeeekin.

JOLASAK. Eskolan leku ezberdinetako jolasen bilduma egin ikasturtean zehar, bukaerarako «Jolas egun» batean familiei erakusteko.

HAUR LITERATURA. Familiek emandako testuekin, eskolan erabili ditugunak, eta guk proposatutako eta landutako testuekin haur literaturako liburua osatuko dugu ikasturte bukaerarako.

METODOLOGIA

Adin tartearen garapen mailari egokituak ditugu gure keinuak, hitzak eta baliabideak. Erreferenteak garez kontziente izan behar gara zer keinu eta esatera erabiltzen ditugun.

Eskoletan elkarbizitzen diren hizkuntza ezberdinetan agurrak idatzi (beste familiek ikus dezaten) eta ahoskatzen ikasi, sarrera eta irteeretan gertutasuna adieraziz familiei ere.

Haur bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak sortzen duen erakarpenera mugarik ez jarri, hauren arteko esplorazioa baimendu errespetuaren baitan.

Eskoletan dagoen materiala aztertu, egun jada merkatuan dauden estereotipoen kontrako materialak erabiliz: panpinak, ipuinak, argazkiak, arropak..., material orok aniztasuna erakutsi behar du.

Haur bakoitzak bere familiaren liburua izango du liburuen txokoan.

Jatorri ezberdinetako festak ospatzea: data zehatz batzuetan, urtebetetzeetan...

TALDE PEDAGOGIKOAK

Familiek dituzten zailtasunen inguruan talde hausnarketa egingo dugu talde pedagogiko osoak, esku-hartzea erabakitzeko.

Bilera pedagogikoetan haur edo familiekin sortzen diren zailtasunak elkarbanatu (aita bat oso babeslea denean bere alabarekin edota ematen dituen mezu matxistekin bat egiten ez dugunean...).



FEMINISMOA



HODEIEKIN DANTZAN (HHko bigarren zikloa eta LH)

Materialak: Baliabideetan dauden bideoak, *Hodeiekin Dantzan* liburua, margoak, paper handia, munduko mapa, musika tresnak....

Denbora: 3 saio.

Taldekatze mota: Banaka, talde txikiak eta talde handia.

GARAPENA:

1. SAIOA



https://www.youtube.com/watch?v=_PK8p2Ftkws

Ipuina irakurri edota entzun ondoren hurrengo galderak egingo dizkiegu ikasleei:

- Herria handitzen hasi zen, bertako pertsona guztiak berdinak dira? Nolako ezberdintasunak dituzte?
- Zure herria/auzoa ere handia da? Nolakoak zarete bertan bizi zaretenak?
- Neskatoaren etxea ere handitzen hasi zen. Nor zen hara bizitzera joan zen lehena? Deskribatu.
- Zer dira bongoak eta zertarako erabiltzen dituzte? Inoiz ikusi edota entzun dituzu? Musika hori gustukoa duzu?
- Gero eta etxe gehiago ziren, nolakoak ziren auzokideak? Zuri gustatuko litzaizuke halako etxe batean bizitzea? Zergatik?
- Desberdinak izan arren lagunak ziren?

Ondoren haur bakoitzari nolako hurrak dauden eskolan deskribatzeko eskatuko zaie.



2. SAIOA (HHko bigarren zikloa eta LH 1. zikloa)

Horma irudi bat egingo dugu haurren siluetekin, ondoren norberak bere burua, gehien gustatzen zaion kolorez margotuko du.

2. SAIOA (LHko 2. eta 3. zikloan)

Orkestra bateko musika tresnen murala erakutsi. Hurrengo galderak egingo dizkiegu ondoren:

- Nolakoak dira agertzen diren musika tresnak?
- Nolako desberdintasunak dituzte?
- Tresna guztiak berdina izango balira, adibidez guztiak pianoak, edo flautak, orkestra bat osatuko lukete? Zergatik?
- Zure ustez zeintzuk dira inportanteenak, beltzak (pianoa, klarineta...), marroiak (biolina, biola...), metala kolorekoak (saxofoia, tronpeta...). Zergatik uste duzu hori?

Orain musika tresnak jarri beharrean pertsonak jarriko ditugu eta egin ditugun galderak pentsatu.

- Gure eskola, auzoa, gizartea ongi joateko guztiak beharrezkoak gara?
- Ezberdintasunak errespetatuz guztiok eskubide berdina ditugu edo izan behar ditugu? Zergatik?

3. SAIOA (HHko bigarren zikloa eta LH 1. zikloa)

Musika klasean: Munduko mapa batean musika tresna ezberdinak kokatu eta doinuak entzun: bongoak, Kena, birimbau, kaxa, txalaparta...



SISTEMA ARRAZISTA ETA KOLONIALA BILUZTEN (DBH eta Batxilergoa)

Materialak: Boligrafoak, infografiak eta dosierraren fotokopiak, kartulinak, marrazteko materiala bideoak ikusteko internet sarbidea.

Denbora: 3 saio.

Taldekatze mota: talde handia, 4-5 pertsonako taldeak eta banaka.

Aurreko 2 saioetan botere eta ardatz ezberdinek munduari buruz dugun ikuskera eta ezagutza baldintza dezakeela ondorioztatu dugu eta horretarako erpinik edo interpretazio anitzak baimentzen ez duen errelatoa errepikatzen dutela baieztatu dugu. Errelato hori funtsean, bestelakotasunaren gaitzespenean oinarritzen da. Hau da, botereek ontzat ematen dituzten gorputz, desio eta ohituretatik zenbat eta urrunago kokatu, orduan eta irudi distorsionatuagoa eraikiko dute pertsona hauen inguruan, inbisibilizatuak izango dira, ez zaizkie dagozkien giza-eskubideak bermatuko eta hainbat indarkeriari aurre egin beharko diete egunerokoan. Errelato horrek ontzat ematen dituen zenbat eta ezaugarri gehiago metatu, orduan eta eskubide eta pribilegio gehiagoren jabe izateko aukera izango duzu, botereak bestelakotasunean sailkatzen dituen zenbat eta ezaugarri gehiago izan zure eskubideen urraketa eta zapalkuntza pairatzeko aukera handiagoa izango da. Gizartea antolatzeke eredu honek berebiziko garrantzia izan zuen kolonialismoan, horren baitan arraza zuriari gizatasunaren ezaugarria esleitu baitzitzaion eta gainerakoak ez-gizaki gisa ezaugarritu zituzten kolonizatzaile europarrek. Askok kolonialismoaren garaia herrialdeen independentzia prozesuekin gaitzertatzen eman badute ere, horren ondorioak eta pentsamoldea bizirik diraute. Horri **kolonialialitatea** deritzogu eta hurrengo saioetan horrek eragindako diskriminazioa aztertuko dugu, arrazakeria eta xenofobia nagusiki.





GARAPENA:

1. SAIOA

<https://www.eitb.tv/eu/bideoa/ur-handitan-5-denboraldia/6589/173889/ez-naiz-arrazista-baina/>

- 1 Etxean kolonialismo garaia irakurketak talde handian labur partekatu.
- 2 «Ur Handitan» saioko *Ni ez naiz arrazista baina...* dokumentalaren erdia ikusi eta ikasleei bideoan azaltzen diren indarkeriak zerrendatzeko eskatu.
- 3 Dokumental zatia ikusten amaitzerakoan horietako zenbaten lekuko izan diren eta ingurukoek eta beraiek izandako jarrera partekatzeko eskatu.
- 4 Etxean edo zentroan arratsalderen batean dokumentala ikusten amaitzeko aukera eman.

2. SAIOA

- 1 Ikasleei inkesta bana pasa eta bete dezatela esango diegu, ez dituzte erantzunak zertan partekatu:

| INKESTA | | BAI | EZ |
|---------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|----|
| 1 | Erosketak egitera noanean saltzaileek mesfidati begiratzen naute ala dendan zehar jarraitzen naute. | | |
| 2 | Telebista piztu eta egunkarietan nire azal kolore bera duten pertsonak edo nire etnia berekoak ikustea zaila izaten da. | | |
| 3 | Nire ikasketetan gutxitan agertzen dira nire azal koloreko pertsonak edo nire etniak gizarteari egindako ekarpenak. | | |
| 4 | Nire eskubideak aldarrikatzen ditudanean edo zerbaitengatik ozen kexatzen naizenean nire herrialdera alde egiteko esaten didate. | | |
| 5 | Poliziak gelditu edo atxilotuko banindu nire azal koloreak edo etniak erabaki horretan zerikusia duela pentsatuko nuke. | | |
| 6 | Nire gorpuzkerak, usainak edo jarrerak nire azal kolore bera duten pertsonekin edo etnia berekoekin lotura duela esan izan didate. | | |
| 7 | Arrazakeriaren kontra jardun naiteke eta esajeratzen ari naizela ala biktimismoan erortzen ari naizela leporatu izan didate. | | |
| 8 | Nire ilea baimenik gabe ukitu dute benetakoa ote den ziurtatzeko. | | |
| 9 | Nire azal kolore bereko pertsonak edo etniari lotutako kirol gaitasun edo gaitasun artistiko zehatz batzuk daude. | | |
| 10 | Norbait nirekin haserretu eta ni iraintzen nauenean nire azal kolorea edota eta etnia jomuga nagusienetako bat izaten da. | | |



Erantzunen gehiengoa ezezkoa bada, **pribilegio zuriaren** jabe zara, beraz badira zure bizitzan lehenengo pertsonan biziko ez dituzun indarkeriak eta sistemaren babesa jasoko duzu pertsona migratu eta arrazializatuen kaltetan. Europako eta mendebaldeko gizarteen ongizatea nagusiki zapalkuntza honetan oinarrituta dago. Adibiderik esanguratsuena, zaintza sistema publiko ahula duten herrialdeak ditugu, non emakume migratu eta arrazializatuek lanaldi amaiezinak dituzten sos gutxi batzuen truke. Sistema kapitalistak horrela zaintzen gatazka erdigunean jarri beharrean, zokoratu egiten du eta lan erreproduktiboen bidezko aitortza eta birbanaketa saihesten ditu.

- 2 Talde bakoitzari eskaiozu irudi honetan agertzen den zikloa inkestako galderetan pertsona arrazializatuak buruz dauden estereotipoetatik abiatuta azaltzeko. Ariketa hau ikasleen barneratze maila aztertzeko baliatu dezakezu.

ZAPALKUNTZAKO ZIKLOA





3. SAIOA

- 1 Azpiko infografia osatzeko DIN-A4 orriak deskarga itzazu Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxako webgunetik (aukerako zure gustuko tamaina). Jolastokian, 4-5 ikasleko taldeetan puzzlea osatu dezatela.

<https://drive.google.com/drive/folders/1nliVVLHI6Oc9JOMKKoP2LLCGCz65LmX>

- 2 Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxako webgunetik V. Nazioarteko ekintzako txostena jaitsi. Ikasgelan jaitsi. talde berdinetan, azpiko taulan agertzen den dosierreko informazioaren kopia banatu, irakurtzeko eskatu eta taldean hausnartu dezatela. Talde bakoitzari talde handian bere zatia azaltzeko eskatu. Horretarako infografia bera edo beraiek sortutako infografia berri bat baliatu dezaketela azaldu.

https://www.emakumeenmundumartxa.eu/wp-content/uploads/2020/12/EMM_dosierra_EUS_A4.pdf

| GAIA | Orrialdeak |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| Zubiak, hesiak, txarrantzak | 17-18 |
| Arrazakeria instituzionala: hesi ikusgarriak | 24-25 |
| Heriotza zibilera kondenatzea: atzerritarren legea | 25-26 |
| Gizarte arrazismoa: hesi ikusezinak | 30-31 |
| Zer egin dezakegu, kolektibo feminista gisa, sistema arrazista, kolonial, kapitalista eta heteropatriarkalean arrakalak sortzeko? | 52-54 |

- 3 Bukatutakoan, infografiaren kopia bat ikasgelan, zentroko txokoren batean edo herriko txokoren batean (baimena eskatuta) itsasteko proposamena egiezu ikasleei.



Ebaluaketa

Kartelarekin egingo den lehenengo jarduera ikasleek arrazakeriaz, feminismoaz eta dekolonialitateaz dituzten ezagupenak edota sentsibiltatea ebaluatzeko erabiliko da. Horrek erraztuko du zehazten zeintzuk diren bereziki landu behar diren alderdiak.

Unitatea lantzen den bitartean, ikasleen parte-hartzea eztabaidetan informazioaren bilaketan eta materialen elaborazioa behaketa sistematiko baten bitartez ebaluatuko da.

Unitatea bukatzean, berriz, ikasleen banakako eta taldeko lana baloratuko da ezarritako irizpideen arabera.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jardueraren beraren ebaluazioa egingo da, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu den gela, denbora, ikasleen motibazioa, taldekatzea... Hau guztia unitatearen prozesua eta garapena egokitzeko erabiliko da.

EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

- Ea migrazia, dekolonialitatea, mugak, transnazionalak, arrazakeria eta antigitanismo bezalako kontzeptuak ulertzen diren.
- Ea aniztasuna era positiboan ikusten duten.
- Ea migrazioaz zer dakiten.

EBALUATZEKO TEKNIKAK

- Behaketa, argazkiak...

EBALUATZEKO TRESNAK

- Irakaslearen eguneroko jarraipena.
- Egindako lanak.
- Argazkia.
- Errubrikak.

IKASLEEN EBALUAZIOA

- Zer den gehien eta gutxien gustatu zaiena.
- Zer den ikasi dutena edota zertaz jabetu diren.
- Zerk harritu dituen gehien.
- Zer aldatuko luketen prozesuan.



BALIABIDEAK

HAUR HEZKUNTZA



Urtxintza eskola: *Jira bira munduari begira*. 24 jolas, 12 tailer, 12 errezeta, 12 ipuin (Brasil, Txina, Ijito herria, Sahara, Kolonbia, Filipinak, Euskal Herria, Bolivia, Senegal, India, Errumania eta Marokoko materialak biltzen ditu).

HAUR HEZKUNTZA eta LEHEN HEZKUNTZAKO Lehen zikloa:

Hodeiekin dantzan. Vanina Starkoff. Kalandraka

https://www.youtube.com/watch?v=_PK8p2Ftkws

Behehoak eta goikoak

Testua eta marrazkiak: Paloma Valdivia

Itzulpena: Manu Lopez Gaseni

<https://www.youtube.com/watch?v=02NkP-2MMGQ>

<https://www.youtube.com/watch?v=6fsnO-4ijWs>

Koloretako txoriak

<https://vimeo.com/159775878>

«Auzokide berriak» www.losnuevosvecinos.net/eusk/



DBH Batxilergo Lanbide Heziketa

«Auzokide berriak» www.losnuevosvecinos.net/eusk/

Gente de aquí/gente de allí

Gaspacho agridulce

Quan Zhou Wu. Astiberri argitaletxea

Destellos. Jen Wang. Saprستي

Una Laowai (extranjera) en Shanghai. Elisa Riera. Astiberri argitaletxea

El piano oriental. Zeina Abirached. Salamandra

Lagun Berrria. Tomi Ungerer. Kalandraka argitaletxea


Bidaia luzea. Daniel H. Chambres. Kalandraka argitaletxea





2. SAIOAREN ALTERNATIBA

LUPITA NYONG'O ETA ERREFERENTEAK
Metodologia (2-4-denak estrategia erabiliz)
lehenengo binaka eztabaidatuta, gero
launaka eta gero talde handian. Taldeko
bozeramaile bat aukeratu beharko da.



- 1 Ba al dakizu nor den Lupita Nyong'o? Eta nor den Jennifer Lawrence Ondoren aktorea honen bideoa ikusi dezakete.

[https://www.youtube.com/
watch?v=ZPCkfARH2eE&ab_
channel=www.jaxsprats.com](https://www.youtube.com/watch?v=ZPCkfARH2eE&ab_channel=www.jaxsprats.com)

- 2 Zein da zure aktore edo aktorea gogokoena? Zein da bere etnia edo azalaren kolorea?
- 3 Ikusten dituzun pelikula gehienetan zein da protagonistaren azal kolorea?
- 4 Zein rol mota egiten dituzte pertsona arrazializatuek pelikuletan?
- 5 Taldeetan bildu eta hausnartu:
 - Ze eragin duen bakoitzaren bizitzan erreferenteak izatea.
 - Ze koloretakoak dira zure erreferenteak eta zer egiten dute?
 - Ba al dituzue beltza, gizona, aniztasun funtzionala edo desberdinak diren erreferenteak? Zergaitik bai edo ez? Ba al du honek eraginik zuen bizitzan?

▪ «Ni ez naiz arrazista... baina», Ur Handitan (EITB).
[https://www.eitb.tv/eu/bideoa/ur-handitan-5-
denboraldia/6589/173889/ez-naiz-arrazista-baina/](https://www.eitb.tv/eu/bideoa/ur-handitan-5-denboraldia/6589/173889/ez-naiz-arrazista-baina/)

▪ «Ateak Itsasoari», Ur Handitan (EITB).
[https://www.eitb.tv/es/video/ur-handitan-3-
denboraldia/5916/136870/ateak-itsasoari/](https://www.eitb.tv/es/video/ur-handitan-3-denboraldia/5916/136870/ateak-itsasoari/)

KURRIKULUMA dekolonizatzen

